



2023-2024 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA KIROLENE KIROL IRAKASKUNTZEN IKASTETXE PUBLIKOAN

**Hezkuntzako
sailburuordearen Ebazpena**



AURKIBIDEA

SARRERA	3
I.- IKASTETXEKO JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO BALIABIDEAK	4
1.- EPE LUZERAKO ANTOLAKETA-BALIABIDEAK	5
1.1. Ikastetxearen heziketa-proiektua (IHP)	5
Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA)	5
2.- EPE LABURRERAKO ANTOLAKETA-BALIABIDEAK	6
2.1. Ikastetxearen urteko plana (IUP)	6
2.2. Ikastetxearen urteko memoria	8
II.- ANTOLAKETA ETA JARDUTEKO ARAUBIDEA	8
1.- GOBERNU-, KOORDINAZIO- ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK	8
1.1. Gobernu-organoak	8
1.2. Koordinazio-organoak	9
1.3. Partaidetza-organoak	9
2.- KIROL-IRAKASKUNTZEN ANTOLAKETA	9
2.1. Justifikazioa	9
2.2. Taldeen antolaketa	10
2.3. Irakaskuntzen denboraren banaketa	11
2.4. Hezkuntza-guneak	12
2.5. Irakaskuntzen eskaintza	12
3.- IRAKASLEEKIN LOTUTAKO ANTOLAKETA-NEURRIAK	14
3.1. Irakaskuntza-jardueraren antolamendua	14
3.2. Irakasleen lanaldia	16
3.3. Zuzendaritzako kargudunen ordutegia eta murrizketa	18
3.4. Irakasleen bertaratzea	19
3.5. Sailak	20
3.6. Hezkuntza arreta	23
4.- IKASLEEKIN LOTUTAKO ANTOLAKETA-NEURRIAK	23
4.1. Eskola-ordutegia	23
4.2. Ikasleak eskoletara joatea	23
4.3. Ikastetxetik kanpoko jarduerak	24
4.4. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	24
5.- IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDI GENERIKOAK	24
5.1. Ebaluazio-bilerak	25
5.2. Eskola-errendimendua objektiboki baloratzeko eskubidea	26



III. KIROL-IRAKASKUNTZAK	26
1. IRAKASKUNTZETARAKO SARBIDEA	26
2.- IRAKASKUNTZEN ANTOLAKETA	27
2.1. Kirol-irakaskuntzen mailak	27
2.2 Prestakuntza praktikoko blokea/modulua	27
2.3. Amaierako proiektuaren modulua	27
3.- EBALUAZIORAKO ARAU -ERREFERENTEAK	27
IV. FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO BESTE ARAU BATZUK	28
1 - IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA, URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO	28
2.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA IZAPIDETZEA ETA ORDAINTZEA	28
3.- DATU PERTSONALEN BABESA	29
4.- JABETZA INTELEKTUALA IKASTETXEETAN	29
5.- OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA IKASTETXEETAN	30
5.1. Osasuneko larrialdi-egoerak ikastetxeetan	30
5.2. Osasun-arreta eskola-orduetan	30
5.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua	30
5.4. Obrak	30
5.5. Tabakoa eta edari alkoholodunak	31
6.- LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUA	31
6.1. Segurtasuneko laguntzailea	31
6.2. Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan	31
6.3. Larrialdi -simulakroak	31
6.4. Botikin eramangarria	32
6.5. Lan-istripuak	32
6.6. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa	32
ARAUBIDE OSAGARRIA	32



KIOLENE KIROL-IRAKASKUNTZEN IKASTETXE PUBLIKOIA HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2023-2024 IKASTURTERAKO

Ebazpen honen helburua da Kirolene Kirol Ikastetxe Publikoaren antolaketa eta funtzionamendurako funtsezko jarraibideak ezartzea; besteak beste, zentro horretako prozesu pedagogikoetan eragina duten zenbait neurri.

Ikastetxeko zuzendaritza taldeak behar diren neurriak hartuko ditu ikastetxeko irakasle guztiek ebazpen honen eduki osoa ezagutzen dutela bermatzeko.

Era berean, ikastetxeetako ordezkari-taldea gorenari legez esleitutako eskumenak eta ebazpen honetan jorratutako gaiak kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak ebazpen honen edukiaren berri emango dio aipatutako Ordezkaritza Organo Gorenari, ikasturtearen hasieran egingo duen lehenengo bilan.

SARRERA

Azken ikasturtetan zehar hezkuntza-sistemak erakutsi duela erresilientzia-gaitasuna duela egoera aldakorretara egokitzeko, eta gertaera hori palanka bihurtu da hura garatzeko eta indartzeko. Halaber, berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako jarduerari berriro ekiteko heldu beharreko erronkei buruz pentsatzen jarraitu behar dugu.

Lehenik eta behin, identifikatutako erronkak lantzen jarraitu nahi dugu, eta ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari aholkularitza eta laguntza hobea eman.

Jakina, ebaluazio-tresnak lantzen eta ikaskuntza hobetzeko eta neurtzeko modu berriak bilatzen jarraitu behar da, hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan eragin ahal izateko aukera berriak integratuz, hezkuntza-prozesu horietan arreta handiagoa jarriz, ikaskuntzarako arrakasta-palankak eta hobetzeko aukerak identifikatuz, betiere ikasleak eta haien hezkuntza-premiak, sozialak eta emozionalak ardatz hartuta.

Premia guzti horiei erantzutea erronka handi bat da eta hezkuntza-jarduerak erantzun behar diote, edozein egoera apendizai eta garapen pertsonala bihurtzeko eta curriculum eta eskola-antolamendua kudeatzeko modu berriak diseinatzeko aukera bilakazeko; kokatutako berrikuntza-prozesuak aktibatuz eta, garrantzitsuena, ilusioz eta motibazioz lan egiten jarraitzeko, gizarteari gure zerbitzurik onena eskaintzeko.

2023-2024 ikasturteari begira, aurreko ikasturtean markatutako ildo estrategikoekin jarraituko dugu

- Hezkuntza-lidergoia eta ikastetxeen ahalduntzea sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoan euskararen erabilera eta garapena sustatzeko estrategia berriak bultzatzea.
- Ikastetxearen plan digitala garatzea, ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzunez.
- Aktiboki lan egitea eskola inklusibo, askotariko eta ikasle guztien beharretara egokitutako baten alde.



I. IKASTETXEKO JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO BALIABIDEAK

Euskal Eskola Publikoaren Legeak¹ ikastetxe publikoen autonomia bermatzen du pedagogiari, antolaketari eta kudeaketari dagokienez; horren adierazgarria da ikastetxeek epe ertain eta laburrerako jarduera antolatzeko tresnak prestatzen, onartzen eta gauzatzen dituztela.

Ikastetxearen antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako agirietan kontuan hartuko dira ikastetxe guztiei eragiten dieten baldintza hauek:

Jasangarritasun-irizpideak

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) barne biltzen dituen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda berriarekin bat etorritik, eta 2030erako Euskadiko Jasangarritasunareko hezkuntzako Estrategia garatzen jarraitzeko, ikastetxeek modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatu behar dituzte.

Ildo horretan, beharrezkoa da ikastetxeek jasangarritasunerako konpromiso propioak zehaztea, bai euren Curriculum Proiektuari dagokionez, bai kudeaketa eta partaidetza komunitarioko jardunbideei dagokienez. Horrek berekin dakar, halaber, jasangarritasunaren aldeko helburuak eta jarduerak sartzea hezkuntza-antolaketako dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP...).

Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzeak dakar, batez ere, ikasleengan beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoaren garapena, arazo ekologiko eta sozialen aurrean; tokiko esparruan eta esparru globalean, ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak bultzatuz, bai banakakoak, bai taldekoak, orain eta etorkizunean.

Berdintasun-irizpideak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin (otsailaren 18ko 4/2005) bat etorritik, ikastetxeek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, honako helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaini behar dute, bereizkeria mota oro baztertu eta generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatu. Horiez gain, genero indarkeriaren prebentziora zuzenduta egon behar dute, hots, sexismoan oinarritutako edozein indarkeria prebenitzera.

Ildo horretan, ikastetxeek bere berdintasun-konpromisoak zehaztu behar dituzte beren hezkuntza- politikan, kulturen eta jardunbideetan. Horrenbestez, ikastetxeek berdintasuna sustatzera eta genero indarkeria prebenitzera bideratutako helburu eta jarduerak horiek beren hezkuntzako antolamendu- dokumentuetan jaso behar dituzte.

Ikastetxeek hezkidetzara eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako proiektuak garatuko dituzte, eta irakasgai guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean txertatuko dituzte aipatutako Legean eta II. Hezkidetzaren Planean («[EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, 2019-2023](#)») jasotako hezkidetzaren helburuak.

¹ 1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa



1. EPE LUZERAKO ANTOLAKETA-BALIABIDEAK

1.1. Ikastetxearen heziketa-proiektua (IHP)

IHP proposamen integrala eta globala da; ikastetxearen beraren ezaugarrien analisia aintzat hartuta, bere ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du.

Indarreko arau-esparrua errespetatuta, IHP erreferentzia izan behar da ikastetxeak dituen eskumenen esparruan hartu beharreko erabakietarako. Izan ere, oinarritzko eta funtsezko agiri instituzional horrek hezkuntza-erkidegoa identifikatzeko ezaugarriak zehazten ditu, horren ilusioak eta itxaropenak etorkizunerako proiektatzen ditu eta kanpora begira eman nahi den irudia esplizitu egiten du.

Curriculum-esparruan IHP garatzea ikastetxearen curriculum-proiektuan (ICP) islatzen da, eta, antolaketaren arloan, aldiz, antolakuntza- eta jarduera-araudian (AJA).

Hiru agiri horiek –IHP, ICP eta AJA- ikastetxeko jarduera osoari zentzua ematen dioten erreferentziak biltzen dituzte eta koherentzia eta egonkortasuna ematen diote hezkuntza-jarduerari; hortaz, epe luzerako agiritzat joko dira.

Ebazpen honetan ez da adierazten zein alderdi sartu behar diren proiektu horietan eta nork prestatu eta onartu behar dituen, bi gaiak araututa baitaude aipatutako Euskal Eskola Publikoaren Legean eta Hezkuntzaren Lege Organikoan. Hezkuntza Sailak IHP zehazteko lagungarria izan daitekeen gida² argitaratu du. Edonola ere, garrantzitsua da proiektu horiek hezkuntza-erkidegoko eragileen arteko ahalik eta adostasun handienaren emaitza izatea.

Hezkuntza Ikuskaritza arduratuko da proiektu horiek prestatzeko aholkularitzaz, eta ebaluazioa egingo du, betiere ikastetxearen ezaugarri eta lehentasun espezifikoak kontuan hartuta.

1.2 Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA)

Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuak³ laugarren xedapen gehigarrian xedatzen du antolakuntza- eta jarduera-araudien edo barne-araudien aldaketa, eta, horretarako, sei hilabeteko epea ezartzen du aipatutako dekretua argitaratzen denetik.

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoen agiria da, derrigorrezkoa, Euskal Eskola Publikoaren 29. artikulua araberaren arabera.

Ondoko hauek jaso behar ditu araudiak, gutxienez:

- Ikastetxearen antolatze-egituraren eta bere funtzionamenduaren definizioa.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko bizikidetzeta eta errespetua eta bulegoak eta instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatuko duten zenbait arau. Edonola ere, arau horiek 201/2008 Dekretuak ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruz xedatzen duena bete beharko dute.
- Ebaluazioen gaineko erreklamazioak egiteko araubidea.

Ikastetxeei aipatutako AJA aldatzea errazteko, aurrez aipatutako dekretuak xedatutakora egokitze aldera,

² [Heziketa-proiektua prestatzeko gida](#)

³ [Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa](#)



Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxe guztien esku utzi du eredu orientagarri ⁴ bat, nahitaez bete behar ez dena. Halaber, ikastetxeek goian aipatutako 201/2008 Dekretua aplikatzeko gida⁵ ere eskuragarri dute.

2. EPE LABURRERAKO ANTOLAKETA-BALIABIDEAK

Ikastetxearen beste agiri batzuk arlo operatibo eta funtzionalekoak dira, eta bertako bizitzaren alderdi zehatzagoak garatzen dituzte. Batzuk plangintza estrategikoarekin lotuta daude, hala nola zuzendaritza-proiektua edo plan estrategikoa, eta lau, bost edo sei urterako egiten dituzte ikastetxea zuzentzeko hautagai gisa euren burua proposatzen duten lantaldeek. Agiri garrantzitsuak dira; izan ere, plan estrategikoa, egongo balitz, urtero berritzen diren gainerako antolaketa-tresnen iturria izan beharko litzateke.

2.1. Ikastetxearen urteko plana (IUP)

Ikastetxeek 2022-2023 ikasturterako Ikastetxearen Urteko Plana egingo dute ikasturte hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute "Hezkuntza Ikuskaritza/Dokumentuak" plataforma informatikoaren bidez. Sailaren webgunean dago plataforma hori, urriaren 31 baino lehen.

Zuzendaritza-taldeak koordinatuko du ikastetxearen urteko plana, eta, kasu bakoitzean, dagokion kide anitzeko organoa izango du. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio plan hori onartzea, hargatik eragotzi gabe Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak irakaskuntza-jardueren programari dagokionez Klaustroari esleitzen dizkion eskumenak.

IUP labor eta zehatz egingo da, ikastetxearentzat berarentzat erabilgarria eta praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidan jasotako gomendioei jarraituz.

Atal hauek izan behar ditu:

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Programa hori egitea Klaustroari dagokio eta, hala badagokio, klaustroak eskuordetu dezakeen batzorde bati.

Programa horrek, ikastetxera joateko lehen hilabeteetan, ikasleekin kompetentzia digitala lantzeko jarduerak aurreikusi beharko ditu, osasun-larrialdiko egoera berri bat gertatuz gero, beren etxeetatik online jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Ikasturte honetarako hartzen diren erabaki edo irizpide zehatzak bildu behar dira. Besteak beste, honako hauek sartu behar dira:

- Oro har, taldeen antolamendua eta denborazkotasun-ezaugarriengatik antolaketa berezia behar dutenena. Besteak beste, honako alderdi hauek adierazi behar dira: multzoen denboraren banaketa, ordutegiak, erabilitako espazioak...
- Irakasleei zereginak esleitzeko eta irakaskuntza-dedikazioko denbora eta ikastetxean emandako denbora banatzeko irizpideak, hezkuntza-arreta, taldeen erantzukizunak, irakasle-taldeen koordinazioa...
- Ikasleak elkartzeko irizpideak, erabilera komuneko guneen banaketa, baliabide didaktikoen antolaketa, ebaluazioen datak...

⁴ AJA eredua

⁵ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida



Halaber, ikastetxeak parte hartzen duen Hezkuntza Sailaren esperientziak eta programak bilduko dira, baita ikasturtean egingo diren ikastetxeak sustatutako planak edo proiektuak ere.

b) Jarduera osagarrien programa

Kirol-irakaskuntzen ezaugarriak, kirol horiek egiteko beharrezkoa den instalazioen goi-mailako espezializazioa, ikastetxearen eskaintzak hartzen dituen modalitateen aniztasuna. Kontuan hartuta, hainbat kirol-modalitatearen moduluen zati handi bat (multzo espezifiko gehienak) ikastetxetik kanpo ematen da.

Beste era batean esatearren, beste irakaskuntza batzuetan berezia dena ezinbestekoa eta ohikoa da kirolarekin lotutakoetan, eta ondorioz ikasgelaz kanpo ematen diren baina curriculumaren barnean dauden jarduera horiek ezin dira osagarritzat jo.

Hala ere, beharrezkoa izango da irakaskuntza-jardueren programan oso argi geratzea, irakaskuntzaren denboralizazioaz gain, moduluak ematen diren espazioak edo kirol-instalazioak, bereziki kanpokoak direnean.

c) Prestakuntza-plana

IUP-ren zati hau egitea zuzendaritza-taldeari edo batzorde pedagogikoari dagokio, eta OOGk onartu behar du. Plan horrek barneko ebaluazioen emaitzak aztertu ondoren hautemandako beharrei eta proposatutako hobekuntza-helburuei erantzun die, eta egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza jasoko ditu.

Plana diseinatzeko, garrantzitsua da ikastetxeek alde aurretik hausnartzea zer eremutan sakondu behar duen planak, lehentasunak ezar daitezten prestakuntza-ekintzetan, ikastetxeen beharren eta interesen arabera.

Lehentasunezko helburuen artean, irakasleei eta ikasleei behar besteko gaitasun teknologikoa eman beharko zaie, bi kolektiboen arteko lan digitalaren lotura bermatzeko. Helburu hori lortzeko, garrantzitsua da ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitalaren erabilera sustatzea. Horregatik, material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien gaitasun digitalera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera bideratutako ekintzak bultzatuko dira.

Planak honako hauek jasoko ditu:

- Prestakuntza-proiektuak
- Egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza (parte-hartzaileak, arduradunak, datak eta ordutegia).

IUPn jasotako prestakuntza-jardueretan, irakasleen parte-hartzea nahitaezkoa izango da, eta haren erregistro bat eraman beharko da.

Gomendatzen da zuzendaritzak, ikasturtearen hasieran, irakasle guztien aldi bereko egonaldiak planifikatzea, batera egotea eskatzen duten prestakuntza-lanak egiteko.

Prestakuntza-plana hezkuntza-komunitateko kide guztientzat egongo da zabalik, eta irakaskuntza-jardunean eta irakaskuntzaz kanpoko jardunean izango duen eragina izango du helburu, ikasleen irteera-profila eskuratzeko eta barneko eta kanpoko ebaluazioetako emaitzak hobetzeko.



d) Urteko kudeaketa-programa

Ikastetxearen urteko planak urteko kudeaketa-programa barne hartuko du, eta azken horrek, era berean, uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan (Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzen duena) edo hura ordezkatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera egindako eta onartutako aurrekontua jasoko du.

Zuzendaritza-taldeak edo batzorde iraunkorrek landu behar du IUPren zati hau, eta OOGk onartu.

Programa honetan jasoko dira gastua dakarten jarduerak, eta hainbat atal bereizi beharko dira: diru- iturriak, gastu-aurreikuspenak eta irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar. Egitean, erosketa berdeko eta kontsumo jasangarriko irizpideak zein berdintasuna sustatzekoak sartzea gomendatzen da.

Bestalde, egiten diren kanpo-ikuskapenez aparte, ikastetxeak urtero egin beharko du autoebaluazio-prozesu bat. Hala, memorian jasoko du IUP osatzen duten plan eta proiektu guztietan aurreikusitako helburuak zein neurritan bete diren. Aurreko ikasturteko memorian atera diren ondorioak kontuan hartuta, ikastetxean gauzatzen diren plan eta programak garatzeko helburuak lehenetsi eta, hala badagokio, aldatuko dira. Ondorioz, lehenetsitako arlo horietan aurrerapausuak egingo dira, besteak beste, irakasleen urteko prestakuntza-planekin, sailen jarduera- programekin edo ikastetxearen beste edozein programarekin lotutakoak.

2.2. Ikastetxearen urteko memoria

Aurreko lerrokadan azaldu den bezala, ikasturtea amaitzean, ikastetxeak amaierako memoria prestatuko du; horretan IUPren helburuak eta ikastetxearen funtzionamenduari lotutako beste alderdi garrantzitsu batzuk ebaluatuko dira.

Halaber, ziklo bakoitza amaitzean, saileko kideak bilduko dira ikasturtearen ebaluazioa egiteko, lan- plana eta haren lorpenak aztertzeko, eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko.

Dokumentu horiekin ikastetxearen urteko memoria prestatuko da eta OOGk onartu beharko du. Ikastetxeak Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko du irailaren 30a baino lehen, «Hezkuntza Ikuskaritza/Dokumentuak» plataforma informatikoaren bidez.

Memoria hori izango da hurrengo ikasturteko ikastetxearen urteko planean sartu beharreko aldaketen justifikazioaren oinarria. Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, eta Hezkuntza Sailaren webgunean dagoen gidako ⁶gomendioei jarraituko die.

II. ANTOLAKETA ETA JARDUTEKO ARAUBIDEA

1. GOBERNU-, KOORDINAZIO- ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK

1.1. Gobernu-organoak

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketa- buruak eta idazkariak osatuko dute zuzendaritza-taldea. Zuzendariaren funtzioak eta zuzendaritza- taldearenak aipatutako legearen 34. eta 36. artikuluetan zehazten dira, hurrenez hurren.

⁶ [Ikastetxearen urteko Plana eta Urteko memoria egiteko gida](#)



1.2. Koordinazio-organoak

Koordinazio-organoak sailak dira. Koordinazio didaktikorako sailak dira dagozkien moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta aurrera eramateaz arduratzen diren organoak. Sailari dagozkion irakasgaien irakasleek eta funtzionalki atxikitako irakasleek (antzeko irakasgaiak ematen dituzten beste sail batzuetako irakasleak) osatzen dituzte organoak. Halaber, zeharkako beste sail batzuk egon daitezke irakaskuntzari eragiten dioten gaietan laguntza eta orientabidea emateko.

1.3. Partaidetza-organoak

Hauek dira partaidetza-organoak: Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) eta irakasleen klaustroa.

OOG ikastetxeko gobernuko hezkuntza-komunitateko kideak barne hartzen dituen partaidetza- organoa da. Haren eskuduntzen artean dago ikastetxearen epe labur eta ertainerako helburuak eta zuzentzarauak ezartzea; hortaz, autonomiaren arloan, ikastetxearen funtzionamenduaren azken erantzulea da.

Ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatzen dute irakasleen klaustroa, eta zuzendaria da horren burua. Irakasleek ikastetxearen gobernuan parte hartzeko organoa da, eta irakaskuntzarekin lotutako ikastetxearen funtzionamenduaren alderdiak planifikatzeko, koordinatzeko, jakinarazteko eta erabakitzeke erantzukizuna du.

2. KIROL-IRAKASKUNTZEN ANTOLAKETA

2.1. Justifikazioa

Kirol-irakaskuntzen berezitasunak eta kirol-modalitate eta espezialitate batzuen urtarokotasunarekin nahiz denborazkotasunarekin lotutako baldintzak kontuan hartuta, eta 1363/2007 Errege Dekretuaren⁷ VII. kapituluan xedatutakoa aintzat hartuta (mugatzen dituen errealitatearekin malgua den eskaintza jasotzen da), beharrezkoa da neurri bereziak ezartzea ikastetxearen eskaintza antolatu eta egokitzeko, oso kirol-modalitate desberdinak baititu.

Mendiko kirolak eta eskalada	Sakanak
	Eskalada
	Erdi-mailako mendia
	Goi-mendia
Neguko kirolak	Eski alpetarra
	Snowboarda
Taldeko kirolak	Futbola
	Areto-futbola
	Saskibaloia
	Eskubaloia
Uretako kirolak	Bela
	Urpekaritza
	Salbamendua eta sorospena
	Piraguismoa
Banakako kirolak	Atletismoa
	Judoa

⁷ [1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24 koa, araubide bereziko Kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena](#)



a) Egutegia eta ordutegiak

Kirol-irakaskuntzek beste irakaskuntza batzuek ez dituzten ezaugarriak dauzkate, eta berezitasun horiek nabariak dira eskaintzaren denboralizazioan eta eskola-aldien banaketan.

1363/2007 Errege Dekretuaren 24. artikulua haxe ezartzen du: *«kirol-irakaskuntzen eskaintza malgutu ahalko da ikasketak kirol- eta lan-jarduerekin edo bestelako jarduera batzuekin bateratu ahal izateko, bereziki helduen eta errendimendu handiko kirolarien kasuan».*

Halaber, hamaikagarren xedapen gehigarriak haxe adierazten du: *«eskola-egutegia egokitzea, kontuan hartuta kirol-irakaskuntzen berezitasunak eta kirol-modalitate edo -espezialitate batzuek, esparruagatik, denborazkotasunarekin lotutako baldintzak dituztela».*

Hau da, irakaskuntza horiek emateko modua baldintzatzen duten faktore saihetsezinen berezitasunagatik, CPED KIROLENE KIIPren eskola-ordutegia eta egutegia nahitaez desberdinak izango dira araubide orokorreko gainerako irakaskuntzei aplikatzen zaien eredu orokorrarekin alderatuta.

b) Ikasgela tokialdatuak eta sakabanatuak

Agerikoa da kirol-diziplina bakoitzak espezializazio handiko eremua behar duela, ezaugarri tekniko jakinak dituena. Horregatik, bistakoa da ia ezinezkoa izango litzatekeela ikastetxearen hezkuntza- eskaintzari erantzuteko beharrezkoak diren instalazio guztiak dituen esparrua izatea. Hain zuzen, kirol- irakaskuntzen antolamendu orokorrak egoera hori aurreikusten du, eta, horregatik, 1363/2007 Errege Dekretuaren 45.5 artikulua honako hau ezartzen du: *«ikastetxeek irakaskuntza horiek eskolak emateko soilik erabiltzen ez diren eraikin eta instalazioetan jarri ahalko dituzte, betiere hezkuntzaren arloko administrazioek zehaztutako prestakuntza-guneen eta ekipamenduen betebeharrak eta indarreko legeriak eskatutako baldintzak betetzen badituzte».*

Hitz batez, beharrezkoa da irakaskuntza horietarako tokialdatutako ikasgelak erabiltzea, bestela ezingo bailitzateke CPED KIROLENE KIIPk duen bezalako eskaintza osatu. Bestalde, hezkuntza-sistemaren barruan, egoera horrek ez die kirol-irakaskuntzei bakarrik eragiten; izan ere, helduentzako hezkuntzarako eta hizkuntzak irakasteko ikastetxeek ere irtenbide hori erabiltzen dute.

Ondorioz, ikastetxe honentzat eskola-esparruaren kontzeptua askoz zabalagoa da, eta berezitasun horrek disfuntzioak eragiten ditu hezkuntza-arretaren antolamendu erregularrean.

Helburu horrekin, 2022/23 ikasturtean, CPED KIROLENE KIIP ikastetxeak instalazio publikoak erabili ahal izango ditu, ikasgela sakabanatu gisa, betiere libre badaude eta alde aurretik eskaera eginez, leku horietan egin ohi diren jardueri eragozpenik egiten ez zaien bitartean (76/2008 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzarako eraikin eta instalazio publikoen erabilera arautzen duena, zentro horietako urteko programazioetan jasotzen ez diren jardueretarako). Halaber, beste leku eta instalazio batzuk erabili ahal izango ditu, haien erabilera dagokion titularrarekin adosten badu eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren alde aurreko baimenarekin.

2.2. Taldeen antolaketa

Ikastetxeak, ikasleak taldeetan elkartzeko, taldeak osatzeko irizpide homogeenak aplikatuko ditu honako hauei dagokienez:

- Kokalekua eta egoitza.



- Prestakuntzaren egutegia eta ordutegia.
- Kirol-irakaskuntzaren ziklo jakin baten matrikula osoa edo irakaskuntza-maila jakin baten bloke komunaren zati bat.
- Irakaskuntza mota (aurrez aurrekoa edo urrunekoa).

2.3. Irakaskuntzen denboraren banaketa

CPED KIROLENE KIIPk ikasle-talde bakoitzarentzat planifikatuko du irakaskuntzen denboralizazioa, eskola-egutegi eta -ordutegiak bete ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoak edo, hala badagokio, kasuan kasuko titula xedatzen duen Errege Dekretuak ezarritako ikastordu guztiak.

a) Irizpide orokorrak

2008ko martxoaren 10eko Aginduaren⁸ 6. artikulua ezarritakoaren arabera, ziklo baten eskolak emateko egutegi estandarra irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era bitartekoa izango da.

Halaber, oro har, ikasle-talde bakoitzaren eskola-egutegi eta -ordutegiak honako irizpide hauek bete behar ditu:

- Irakaskuntza-ziklo bakoitzari dagozkion irakaskuntzak ematen eta ebaluatzen bukatzea hamabi hilabeteko gehieneko epean.
- Asteko eskola-aldiak astelehenetik larunbatera banatzea, astean bi atsedeen-egunekin gutxienez.
- Egunean gehienez zazpi irakastordu ematea.
- Hamabost minutuko atsedenaldirak ezartzea, gutxienez, bi edo hiru irakastorduren ondoren.
- Modulu beraren gehienez hiru ordu ematen diren irakastegunak programatzea, prestakuntza praktikoko blokearen/moduluaren edo ingurune naturalera joatea eskatzen duten gainerako moduluen kasuan izan ezik.

Irizpide horiek prestakuntza praktikoko bloke/modulua egin bitartean aldatu ahalko dira, erakunde kolaboratzaileen lan-ordutegira egokitzeko.

b) Denboraren banaketa berezia

Ikastetxeak, salbuespen gisa, aurreko puntuan ezarritako irizpideak malgutzen dituzten eskola-egutegi eta -ordutegiak aplikatu ahalko dizkie talde jakin batzuei. Horretarako, beste egutegi eta ordutegi bat ezartzeko berariazko proposamena egin beharko du. Bertan, emango den irakaskuntzaren bideragarritasuna eta kalitatea bermatuko dira.

Halaber, proposatutako egutegiak eta ordutegiak metodologia-planteamenduetan oinarrituta egon behar dira, eta irakaskuntza ematea jasangarri egiteko arrazoizko ikastordu kopurua eta behar beste atsedenaldirak programatu beharko dituzte. Edonola ere, ordutegiak eta egutegiak malgutzeko, kontuan hartuko dira, oro har, honako irizpide hauek:

- Irakaskuntzak uztailean eta abuztuan eman ahalko dira, baita gainerako hezkuntza-mailetan eskolarik gabekoak diren aldietan ere, kirol-irakaskuntzaren modalitatearen ezaugarriek hala eskatzen badute.
- Irakaskuntzak asteko zazpi egunetan eman ahalko dira, baita igandeetan edo beste oporraldi batzuetan ere. Kasu horretan, gutxienez lau atsedeen-egun programatu beharko dira eskola-jardueran duten

⁸ [AGINDUA, 2008ko martxoaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, funts publikoekin ordaindutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarritzko arautegia zehazten duena.](#)

Agindu horren bi aldaketa daude: [AGINDUA, 2013ko uztailearen 3koa](#) eta [AGINDUA, 2016ko maiatzaren 6koa](#)



hamabost eguneko.

- Egunean gehienez 9 ikastordu eman daitezke; astean, aldiz, guztira berrogeita hamar ordu gehienez.
- Ikasteguna handitzen bada, atsedendietako bat ordubetekoa izango da.
- Ikastegun bateko modulu beraren orduak 4ra handitu ahalko dira gehienez.

Irakaskuntzak emateko ingurune naturalera joan behar denean, irizpide horiek egokitu ahalko dira, betiere egokitzapen hori egiteko arrazoiak badaude.

c) Eskola-egutegi eta -ordutegi malguak ezartzeko prozedura

Egutegi eta ordutegi bereziak aplikatzeko, ikastetxeak Hezkuntza Ikuskaritzan aurkeztu behar du, eskola-aldiaren aurreikusitako hasiera baino gutxienez hilabete lehenago, ordutegia edo egutegia malgutzea bermatzen duen kasuan kasuko justifikazio-memoria.

- Memoria horrek alderdi hauek bildu behar ditu malgutzea eskatzen den talde bakoitzeko:
 - a) Irakaskuntza-zikloa eta kirol-modalitate edo espezialitatea.
 - b) Eskatutako malgutzearen beharra justifikatzen duten irizpide, baldintza eta helburu pedagogikoak.
 - c) Aurreikusitako eskola-egutegia eta ordutegia.
 - d) Modulu bakoitza emango den ikasgelen eta kirol-guneen kokalekua.
 - e) Prestakuntza praktikoko blokea/modulua egiteko aurreikusitako epea.
 - f) Azterketak egiteko aurreikusitako egutegia eta ordutegia.
 - g) Kasuan kasuko ebaluazio-saioak egiteko aurreikusitako egutegia eta ordutegia.
 - h) Kirol-irakaskuntzaren modulu bakoitza emateko izendatutako irakasleak.
- Hezkuntza Ikuskaritzak egokitzen jotzen duen jarraipena egingo du eta egiaztatuko du ikastetxeak ezarritako egutegiekin eta ordutegiekin behar bezala betetzen dituztela memorian bildutako baldintzak.
- Ikasleei behar bezala eman behar zaie zikloaren ezohiko antolaketaren berri, baita hori egin bitartean sor daitezkeen gertaera guztien berri ere.

2.4. Hezkuntza-guneak

Kirol-irakaskuntzen berezitasunak eta aniztasuna kontuan hartuta, eta eskaintako ziklo guztiak emateko ikastetxeak dituen espazioekin eta ekipamenduarekin lotutako mugak aintzat hartuta, beharrezkoa da beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea irakasteko prozesua gauzatzeko.

Oro har, bloke komuna CPED KIROLENE KIIPn bertan emango da. Bloke espezifikoko moduluak, eduki nagusiki praktikoa denez, beste kirol-gune batzuetan egin ahal izango dira.

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko beste ikastetxe publiko batzuetakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko eraikin eta instalazio publikoen erabilera arautzen duen maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuan adierazitako baldintzen arabera,
- b) Dagokion kirol-modalitatearekin zerikusia duten jarduerak eskaintzen dituzten jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko erakundeak edo enpresak

2.5. Irakaskuntzen eskaintza

Irakaskuntzen eskaintza malgotu ahal izango da ikasketak beste kirol-, lan- edo bestelako jarduera batzuekin bateragarri egiteko, batez ere helduei eta goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariei. Horretarako, irakaskuntza hauek eskaini ahal izango dira:



- Osoa edo partziala, blokeka edo kirol-irakaskuntzako moduluka.
- Irakaskuntza presentzialeko edo urrutiko araubidean.
- Berariazko blokeko eta multzo komuneko moduluen ezohiko denbora-banaketaren bidez.
- Talde espezifikoen eskaintza bereziak

a) Matrikula

CPED KIROLENE KIIPk eskaintako araubide bereziko kirol-irakaskuntzak egiteko matrikula honelakoa izan ahalko da:

- Osoa:

Ikastetxeak, irakaskuntzen eskaintza planifikatzeko, irakaskuntza-ziklo jakin bati dagozkion irakasgai guztiak emango dizkien ikasle-taldeak eratuko ditu.

- Bloke komunaren zati bat:

1363/2007 Errege Dekretuaren urriaren 24ko lehen xedapen iragankorrari jarraituz egindako kirol-prestakuntzen bloke komuna ematen denean, CPED KIROLENE KIIPk, irakaskuntzen eskaintza planifikatzeko, bloke komun horri bakarrik dagozkion irakasgaiak emateko ikasle-taldeak eratuko ditu.

b) Irakaskuntza motak

Ikastetxeak baimena du kirol-irakaskuntzak aurrez aurre nahiz urrunetik emateko, aurrez aurreko modalitatean dagoeneko eskaintza dagoen zikloetan⁹.

Kirol-modalitate eta -espezialitate bakoitzaren titulua lortzeko irakaskuntzen barruan, bloke komuneko moduluak urruneko irakaskuntza-araubidean eskaini ahalko dira, baita titulua eta kasuan kasuko gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituen Errege Dekretuak ezarritakoak ere.

Ikasketak modu erdipresentzian edo urrunetik egiteko eskaintzak Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpenean xedatutakora egokitu behar dira; horren bidez, baimena ematen zaio CPED KIROLENE KIIPi EAEn kirol-irakaskuntzak urrutiko irakaskuntza-araubidean edo araubide erdipresentzian emateko.

- Aurrez aurreko irakaskuntza-araubidea

Aurrez aurreko irakaskuntza-araubidean, ikasleak ikastetxera joan behar dira ikasturterako programaturako irakas- eta ikas-jarduerak egitera, indarreko araudian ezarritakoari jarraituz.

- Urrutiko irakaskuntza-araubidea edo araubide erdipresentziala

Urrutiko irakaskuntzan edo erdipresentzian, ahal dela, prestakuntza-jarduerak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilita egin behar dira. Horregatik, ikastetxeak ikaskuntza-plataforma birtual bat izango du, aukera eman dezan gune desberdinetan kokatuta dauden ikasleak eta irakasleak arteko elkarrengaitzat ahalbidetzeko, elkarlanean aritzeko, zeregin eta jarduerak bidali eta ebaluatzeko, nor bere jarduerak interaktiboak zuzentzeko, parte-hartzaileen jardueraren jarraipena egiteko eta ikasleak ebaluatzeko

⁹ EBAZPENA, 2017ko urriaren 25ekoak, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, «Kirolene» kirol- irakaskuntzen ikastetxe publikoak baimentzen duena EAEn urrutiko irakaskuntza-araubidean edo araubide erdipresentzian kirol-irakaskuntzak emateko.



mekanismoak erabiltzeko. Horrek guztiak ez du kentzen zenbait probetan beharrezkoa izan daitekeela ikaslea bertaratzea.

3. IRAKASLEEKIN LOTUTAKO ANTOLAKETA-NEURRIAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeak 36.2.f artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza- taldearen egitekoa da irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara edo beste batzuetara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran. Horretarako, irakasgaiari buruzko arauak hartu behar ditu kontuan. Antolamenduaren helburua izan behar da ikastetxearen urteko plana betetzen dela bermatzea, baita modalitate bakoitzaren ordu-banaketari buruzko hurrengo puntuko irizpideak betetzen direla ere.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen urteko planeko proiektuen arduradunen artean.

3.1. Irakaskuntza-jardueraren antolamendua

a) Modalitate bakoitzaren ordu-banaketa

Modalitate bakoitzari dagozkion modulu eta dedikazio-ordu guztien guztizko ordu-kopurua kontabilizatuko da, eta irakasleei esleituko zaizkie, kirol-modalitate/-espezialitate bakoitzari dagokion titulua ezartzen duten errege-dekretuan eta dekretuan eta aplikatzekoak diren beste oinarrizko arau batzuetan ezarritako baldintzen arabera.

Irakasle guztiek osatu beharko dute ikastetxeari zuzenean dedikatzeko ordutegia modulu-tako irakaskuntza-orduekin, irakaskuntza-dedikaziorako edo esleitutako beste zeregin batzuetarako ezarritako gehieneko orduak gainditu gabe.

Urrutiko prestakuntzen kasuan, irakastorduen zenbaketa orokorreko irakasleek horien ehuneko bat irakaskuntza telematikora bideratuko dute curriculuma garatzeko, eta gainerakoa tutoretza eta tutoretza telematikoko indibidual edo kolektiboko jardueretara, material didaktikoa egin, berrikusi, eguneratu eta modu koordinatuan ebaluatzeko jardueretara, ikasleek ikasturtean zehar egin behar dituzten hezkuntza-jardueren, atazen eta proiektuen programaziora eta diseinura, eta, hala badagokio, blokearen edo moduluaren jarraipenera. Prestakuntzakoak

Prestakuntza erdipresentzialen kasuan, irakastorduen zenbaketa orokorreko irakasleek horien ehuneko bat irakaskuntza presentzialera bideratuko dute curriculuma garatzeko, eta gainerakoa tutoretza eta tutoretza telematikoko indibidual edo kolektiboko jardueretara, material didaktikoa egin, berrikusi, eguneratu eta modu koordinatuan ebaluatzeko jardueretara, ikasleek ikasturtean zehar egin behar dituzten hezkuntza-jardueren, atazen eta proiektuen programaziora eta diseinura, eta, hala badagokio, blokearen edo moduluaren jarraipenera. Prestakuntzakoak

Espezialitate bateko irakasleek ezin badute beren eskola-ordutegia osatu moduluak edo sailaren berezko beste arduraldi-ordu batzuk irakastearekin, ikastetxeko Zuzendaritzak beste modalitate batzuetako soberako orduak esleituko dizkio eskola-ordutegi osatugabeak dituen pertsonari edo pertsonari, betiere interesdunak esleitzen zaion irakaskuntza edo ataza gauzatzeko eskatzen zaion eskumena badu. Adierazitako kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak erabaki beharko du zer ikasgai, talde edo zeregin esleitzen dizkion irakasle bakoitzari bere ordutegia osatzeko.

Bestalde, ikasleek kalitatezko irakaskuntza jasotzeko duten eskubidea errespetatzeko koherentzia didaktiko ahalik eta handiena bilatzeko funtsezko irizpidea ere kontuan hartu beharko da, bai eta irakasleen profilaren



egokitasuna ere, proiektuekin, ikastetxeko zerbitzuekin edo Urteko Planean zehaztutako beste jarduera batzuekin lotutako beste zeregin batzuei erantzuteko.

Oro har, euskarazko lerroak dituzten ikastetxeetan, 2. hizkuntza-eskakizuna behar duten lanpostuetako irakasleek ezingo dute eman gaztelaniazko curriculumik, baldin eta beren espezialitateko euskarazko ordu guztiak beteta ez badaude. Ikastetxeak beharrik badu, IRALE programaren bidez edo Hezkuntza Sailak diruz lagundutako beste ikastaroren baten bidez 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten irakasleei euskarazko curriculumak emateko eska dakieke, haien lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna 1.a izanda ere.

Zuzendaritzarekin eta berrikuntza-proiektuekin lotutako nahiz ikastetxearen heziketa-proiektuan lehentasuna duten eginkizunak, ahal dela, ikastetxean egonkortasuna duten edo ikastetxea destinokotzat duten irakasleei esleituko zaizkie.

Saileko bertako irakasleek eta beste sail batzuetako irakasleek – ordutegi osoa ez dutenek – eman ezin dituzten irakaskuntza-orduekin eratuko dira ikasturte hasierako esleipen-prozesuan eskainiko diren lanpostuak. Lanpostuak eratzeko, ahalik eta koherentzia didaktikorik handiena lortzea izan behar da helburu: espezialitate ezberdinetako ahalik eta irakasgai gutxien ematea, irakasgaietako curriculumak hurbil egotea, irakasgai batean baino gehiagotan oso espezializazio-maila handia behar ez izatea...

b) Taldeen esleipena

Ikasketa-burutzak, otsailaren 19ko 1/1993 Legearen (euskal eskola publikoaren legea) 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoak emandako eginkizunak betez, irakasle bakoitzari eman behar dituen taldeak esleituko dizkio, ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiko irizpideak kontuan hartuta.

Ikasketa-burutzak frogatuko du saileko kide bakoitzaren irakaskuntza-orduak ebazpen honetan ezarritakoarekin bat datozela, eta egiaztatuko du ikasleen talde guztiei arreta eman zaiela.

Ikastetxearen zuzendaritzak legezko eskumena du esleipen guztiak egiteko, berdintasun-irizpideei eta kalitatezko prestakuntza lortzeko irizpideei jarraituz, betiere sailen eta irakasleen proposamenak jaso ondoren.

c) Irakasleen ordutegia prestatzeko modua

Taldeak esleitu ondoren, ikasketa-burutzak irakasleen ordutegiak prestatuko ditu ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudian (AJA) jasota egon beharko diren irizpideei jarraituz.

Ebazpen honen 2.3 puntuan ezartzen den bezala, ikastetxeak horretarako proposamen justifikatua aurkezten badu, irakaskuntza-blokeen denboralizazioak ordutegi irregularrak ekar ditzake, hau da, egunen batean – larunbat, igande, jaiegun edo oporraldietan ere- eskola-saio gehiegi metatu daitezke.

Horregatik, ordutegiak prestatzeko, ahal den neurrian eta betiere AJA-ko irizpideei jarraituz, kontuan hartuko da curriculumak ezohiko ordutegietan edo ikasgela tokialdatuetan eman behar duten irakasleen egoera, eta saiatuko da, ahal den neurrian, irakasle horien lana errazten.

Nolanahi ere, ikasleen premiak ikastetxearen antolaketaren premien gainera egongo dira beti irakasleen ordutegia prestatzerakoan..

d) Ikastetxeko ordutegia onartzea eta argitara ematea

Ikasketa-burutzak prestatutako eta zuzendaritzak behin-behinean onartutako ordutegia bete behar dute,



nahitaez, irakasleek. Interesdunek zuzendaritzak onartutako erabakien kontrako gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko dute Hezkuntzako Lurralde ordezkariaren aurrean, eta horrek ebazpena emango du Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

Irakasleen ordutegiak agerian egon behar du beti, irakasle-gelako eta ikasketa-buruaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Halaber, zuzendaritzako kide bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia jarri beharko da.

Informazio hori guztia ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren eskura egon behar da, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

3.2 Irakasleen lanaldia

a) Urteko lanaldia.

Lanaldi motak eta egutegia gorabehera, langileen arduraldia 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculuma betetzeko orduak, ordutegi osagarria eta irakasleek ikastetxean eman beharreko orduak.

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 50. artikuluari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko oporrak izateko eskubidea izango dute, edo, urtean zerbitzuan ematen duten denbora txikiagoa bada, proportzionalki egokituko litzazkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Oporraldi hori, oro har, abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da iraileko egunik hartuko. Hala ere, kirol-modalitate batzuen denborazkotasunarekin lotutako baldintzen eraginez, prestakuntza-edukiak emateak duen urtarokotasuna kontuan hartuta, oporraldi hori alda daiteke. Aldaketak 2.3 c) puntuan aipatzen den memorian jaso behar dira.

Oporraldia eten egin daiteke gaixoaldi edo istripuren bat izanez gero. Horrelako gorabeherak desagertu eta medikuak alta emandakoan, interesdunek oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango dute. Irakasleek aldi bakarrean hartu beharko dituzte hartu gabeko oporrak; ahal dela, eskola-ordurik ez dagoenean.

b) Asteko lanaldia

Irakasleen asteko lanaldia uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 33. artikuluan dago adierazita; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartu zen. Hala ere, artikulua horrek gehienezko irakastorduen kopuruarekin lotutako salbuespena adierazten du: *«aldatu ahalko da heziketa-zikloek edo ohiz kanpoko beste egoera berezi jakin batzuek hala eskatzen badute. Egoera horiek behar bezala justifikatu beharko dira»*.

Hain zuzen, kirol-irakaskuntzen ezaugarriak kontuan hartuta, gomendagarria da salbuespen horretara jotzea: kirol batzuen urtarokotasunak eta kokalekuak, ingurune naturalera joateko eta han ostatu hartzeko mugak, ikasleen ezaugarri espezifikoekin lotutako beste baldintza batzuk (pertsona helduen ehuneko handia), eskaintzaren sakabanaketa geografikoa...

Hortaz, hurrengo lerrokadetan jasotzen den asteko orduen banaketa orokorra aldatu ahalko da, betiere kasuan kasuko titulua xedatzen duen Errege Dekretuan ezarritako ordu kopuru osoa betetzen bada, baita



eragindako irakasleen arduraldiari (arrunta edo murriztua) dagokion urteko lanaldia ere.

Edonola ere, asteko ordu-banaketaren salbuespena irizpide pedagogikoetan oinarritu behar da eta emandako irakaskuntzen kalitatea eta bideragarritasuna bermatu behar du. Justifikazioa ebazpen honen 2.3 puntuari aipatzen den memoriaren bidez egingo da.

Arduraldi arrunta duten irakasleak

Irakasleek astean 30 orduko dedikazio arrunta izango dute ikastetxean; horietatik, astean 23 ordu irakaskuntza-zereginetarako izango dira, besteak beste: beren espezialitateari dagokion curriculum emateko orduak, hezkuntza-arreta, IHPn jasotako ikasleen parte-hartzea duten proiektuetarako jarduerak, ikasle adingabeen gurasoei arreta emateko orduak, eta beste arreta-lan batzuk. Hezkuntza taldeko ikasleekin, sail didaktikoaren bileretara edo koordinazio pedagogikoko beste bilera batzuetara, prestakuntza-jardueretara eta, oro har, hezkuntza-proiektua garatzen laguntzen duen

Ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko gainerako asteko 7 orduak hileroko zenbatuko dira eta honetara bideratuko dira: sail bakoitzeko hainbat jardura (programazioa, materialen diseinua, proiektu eta programen ebaluazioa, etab.), kide anitzeko organoetako bilerak, ebaluazio-bilerak, ikastetxeko plangintza-eta antolamendu-tresnen lanketa, taldeko irakasleen koordinazio-bilerak eta eskola-esparrutik kanpo egiten diren jarduerari dagokien zenbait eginkizun egitera.

Gainerako orduak, irakasleek zuzenean ikastetxeari eman behar ez dizkietenak (1.462 ordura arte), berriz, honakoa egiteko erabili behar dituzte: irakaslan prestatzeko, azterketak zuzentzeko, borondatezko eta banakako hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

Lanaldi murriztua duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana bateragarri egiteko eskatu bada, ikastetxeetako zuzendaritzek, oro har, ahal duten guztia egingo dute interesdunaren lan-ordutegiak eskatutako kontziliazioari erantzun diezaion, betiere horrek ikasleen arretan eragin negatiborik ez badu; nolahi ere, beharrezkoa den koherentzia pedagogikoa eta antolaketakoa bermatu beharko da.

– Lanaldiaren erdia murriztea: Lanaldi erdia duten bigarren hezkuntzako irakasleek astean 15 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 11 irakaslearen jardueretarako izango dira. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 4 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkieten gainerako orduak arduraldi arrunta duten irakasleentzat aipatutako zereginetara bideratuko dira, arreta berezia jarrita prestakuntzarako denboran, zuzendaritzak hala nahiko balu.

– Lanaldiaren herena murriztea: Lanaldi efektiboa 1/3 murriztuz gero, bigarren hezkuntzako irakasleek astean 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 15 irakaslearen jardueretarako izango dira. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 5 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkieten gainerako orduak arduraldi arrunta duten irakasleentzat aipatutako zereginetara bideratuko dira, arreta berezia jarrita prestakuntzarako denboran, zuzendaritzak hala nahiko balu.

– Irakasleen ordutegia: lanaldiaren herena: Irakasle horien ordutegia astean 10 ordukoa izango da, eta horietatik 8 irakaskuntza-arduraldikoak izango dira. Ordutegi horrek titularrarena osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

– Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak: Osasun-arazo larriak dituzten eta lanaldiaren herena murriztuta duten irakasleek astean 6 ordu murriztu ahal izango dituzte zuzeneko irakaskuntzako



orduak. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik. Murrizketa-ordu horiek zereginak egiteko, liburutegia zaintzeko, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzeko, hezkuntza-arretako lanetarako eta ikastetxeko zuzendaritzak agintzen dizkion antzeko lanetarako erabili beharko ditu. Jarduera horietan ematen diren orduak ordutegi pertsonalean jasoko dira.

c) Gaixotasun kronikoa duten senitartekoak zaintzeko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senidea zaintzeko baimena – Indarrean dagoen akordio arautzailean jaso – Duten irakasleek 50 ordura arteko baimen ordaindua izango dute ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu-kreditu hori egunean erabiltzeko gehieneko denbora bi ordukoa izango da, eta laneko sarreretako eta irteeretako batekin bat etorri beharko da. Baimena hartzen denean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Baimen hori ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta baliatu beharko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak estalita gera daitezten eta, gauatzeko orduan, koherentzia pedagogikoa eta antolamendukoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegiak egitean, curriculuma ez emateko orduak banatzeko, baimen hori eman zaien pertsonak adierazitako beharrak hartuko dira kontuan. Baimen horrek ez du esan nahi aurrez ezarritako ordutegia aldatzeko eskubidea izango denik.

Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza ez badira bat etortzen baimena erabiltzeko moduari buruz eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako Lurralde ordezkariaren aurrean, erreklamazioa hark ebatz dezan, Hezkuntza Ikuskaritzak egingo duen txostena kontuan izanda.

d) Prestakuntza praktikoko blokea/modulua egitea

Prestakuntza praktikoko modulua egiten den aldian, irakasle tutoreek kudeaketa- eta tutoretza-lanak egiten emango dute beren ordutegian esleitutako ordu kopurua.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak aurreikusi eta banatuko du ikastetxeari kasu horietan esleitutako ordutegi orokorra. Baldin eta ikastetxeak prestakuntza praktikoko blokea/modulua kudeatzeko orduak esleituko balitu ikasleek prestakuntza hori egin beharreko aldietatik kanpo, ordu horiek ez lirateke curriculum-ordutzat hartuko irakasleen ordutegian.

Prestakuntza praktikoko blokeko/moduluko tutoretza-orduak, ondore guztietarako, irakaskuntza- arduraldia direla ulertuko da. Hala, ordutegi horren erabilerari eta bisitei buruzko plan bat aurkeztu beharko diote ikasketa-burutzari, aurrerapen nahikoarekin. Lantokiak ikastetxetik urrun badaude, komunikabide eraginkor eta egiaztagarriak erabili beharko dira jarraipena bermatzeko. Prestakuntza praktikoko aldia bukatzean, tutore bakoitzak jarraipena eta ebaluazioa barne hartzen dituen memoria bat aurkeztuko du, eta tutore gisa egindako jardura adieraziko du.

3.3. Zuzendaritzako kargudunen ordutegia eta murrizketak

Ordutegi orokorrak finkatu behar du zuzendaritza-taldeko kideren bat egon behar dela ikastetxean irakaste-ordutegi osoan

Ikastetxeen tratamendu globala homologatze aldera eta, aldi berean, bakoitzaren berezitasuna aintzat hartuta, irakaskuntza-arduraldiaren orduen murrizketa, oro har, honako kontzeptu hauen arabera zehaztutakoa da: ikasle kopurua, talde kopurua eta ziklo kopurua. Banaketa zuzendaritza-taldeak egingo du eta Ikuskaritzari eta Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaio.



3.4. Irakasleen bertaratzea eta lanaldiak betetzen direla kontrolatzea.

Irakasleen absentiak "eskola-jardueraren dokumentua/Ordutegi-koadroak" aplikazioaren bidez erregistratuko dira. Horretarako, DAE dokumentuan "irakasleen absentismoa" erlaitza dago. Erlaitz horren barruan, absentzia gertatu den eguna, iraupena eta absentiaren arrazoiak adieraziko dira.

Absentziak justifikaziorik gabe gertatuz gero, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du Hezkuntza Jardueren Dokumentuko absenzien goitibeherako menuan, eta aplikazioak jakinarazpen bat bidaliko dio automatikoki erreferentziatzko ikuskatzaileari, zeinak Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean kasurako aurreikusitako prozedurak hasiko baititu. Kasu horietan, irakasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango dizkio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, eta hark ebatziko du.

Justifikatu gabeko hutsegiteak gertatzen direnen, ikastetxeko zuzendaritzak EEDko hutsegiteen zabalgarrian aukeratuko du arrazoi hori, eta aplikazioak automatikoki erreferentziako ikuskariari ohar bat bidaliko dio. Horrelakoetan, ikuskariak Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoak abian jarriko ditu, eta dagokion irakasleak beharrezko alegazioak egin ditzake Lurraldeko Hezkuntza Ordezkararen aurrean, eta azken beltzean, Ordezkariek ebatziko du.

Lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak ezartzen dituen arrazoietatik kanpo dauden Bestelako justifikatuak diren hutsegiteak suertatzen direnean, ikastetxeko zuzendaritzak EEDko hutsegiteen zabalgarrian aukeratuko du arrazoi hori, eta gainera, dagokion irakasleak, azpiko loturan lor daitekeen "III ERANSKINA" bete beharko du ("Irakasleen/Lan legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak" atalean):

<https://www.euskadi.eus/informazioa/araubide-bereziko-irakaskuntzeko-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Absenzien egiaztagiriak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirik eguna, ordu-tartea eta absentiaren arrazoiak adieraziko dituzte. Horiek originalak eta argiak izan beharko dute.

"III ERANSKINA" agirian Ikastetxeko zuzendaritzaren sinadura agertzeak, emandako azalpena berresten duela esan nahiko du, hots, azalpen horri sinesgarritasuna ematen diola eta balio duela. Eranskina ikastetxean gordeko da, Hezkuntza Ikuskariaren eskura.

Irakasleek hutsegite guztiak behar bezala justifikatu beharko dituzte eta, ahal den guztietan, agirien bidez egiaztatu beharko dizkiote zuzendaritzari, azken honek eskatu beharrik gabe, eta indarrean dagoen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak ezarritakoaren arabera.

Hutsegiteak justifikatzeko agiriak ikastetxean artxibatu eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Hutsegitea justifikatzeko agirietan eguna, ordu-tartea eta hutsegitearen arrazoiak adieraziko dira. Agiri horiek jatorrizkoak eta argiak izan beharko dute.

Aurreikusteko modukoak diren hutsegiteak gertatzen direnean, irakasleek, ikastetxeko ikasketa- burutzari aldeztatik eta idatziz honakoak jakinarazi beharko dizkiote: hutsegiteak eragina izango duen taldeetako ikasleek egin beharreko ekintzak, erabili beharreko materialak eta behar diren argibideak; modu horretan, irakaslea ordezkatuko duen hezkuntza-arretako irakasleak jarduera horiek behar bezala burutu ahal izango ditu.

Aurreko ikasturtetan egin izan den moduan, ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo hilabetearen 5a baino lehen erregistratu beharko ditu irakasleen hutsegiteak, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egon daitezen.



Greba deitzen denean, ikastetxeko zuzendaritzak grebak izandako eragina eta datuak jakinarazi beharko dizkio Ikuskaritzari “Eguneroko eskola jarduerak (EED)/Ordutegi-taula” aplikazioa erabiliz: “Irakasleen absentismoa” erlaitzean, “Greba datuak”. Horrelakoetan, dauden giza baliabideak erabiliko ditu ikasleei ahalik eta arretarik onena emateko.

Halaber, irakasleren batek ikastetxera sartzeko eta irteteko ordutegian ez-betetze nabarmenak egiten dituela ikusten badu, ordutegiaren arabera jokatzeko eskatuko dio zuzendaritzak. Ez-betetzeekin jarraitzen badu, Lurralde Ordezkaritzako Pertsonal Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari emango die egoera horren berri, behar diren neurriak har daitezten.

Irakasleen hutsegiteak klasea emateko ohiko aldian gertatzen badira, ikasleei arreta emateko ikastetxean ezarritako prozeduraren berri izan beharko du OOGk.

Edozein arrazoi dela medio, klaseak normaltasunez ematen ez badira, berehala eman beharko zaio, telefonoz, Ikuskaritzari egoera horren berri.

Hezkuntza ikuskaritza honek ikastetxeekin elkarlanean aritu nahi du irakasleen hutsegiteen kudeaketa berria abian jartzeak sor ditzakeen zailtasunei aurre egiterakoan; horretarako Irakasleen hutsegitea kudeatzeko eskuliburuia prestatzen ari gara. Bertan urratsez-urrats azalduko dira irakasleen hutsegiteak “Eguneroko eskola jarduerak (EED)/Ordutegi-taula” aplikazioan kudeatzeko egin beharrekoak. Eskuliburu hori ikastetxeen eskura egongo da EED aplikazioko Informazio atalean, eta azpiko loturatik heldu daiteke bertara: http://www.hezkuntza.net/appcont/w18frm/pdf/manual_eu.html

Azkenik, gogoratzen dizuegu ikastetxeek Lurralde Ordezkaritzako Pertsonal Unitateekin kudeatzen dituzten lizentzia eta baimen guztiak, aurreko ikasturteetan kudeatzen ziren modu berean kudeatzen jarraituko direla.

Absentzien partea

Ikasketaburutzak absentzien eguneroko parte gordeko du. Parte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da beti, eta datu hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Irakasleen absentziak eta atzerapenak.
- Ikastetxeko edozein gelatan ikusitako gorabeherak.
- Gertatutako istripuak.
- Irakasleen sinadurak

3.5. Sailak

Sailak dira espezialitate bakoitzeko moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta aurrera eramateaz arduratzen diren organoak. Bertako burutza baten zuzendaritzapean, espezialitate bateko zikloetako eskolak ematen dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatu behar dute. Sailen lana baterako eta kide anitzeko eginkizuna da; hala, egiten duten lana kide guztien erantzukizuna izan da.

Ikastetxean eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiek sail bateko kide izan behar dute.

Ildo horretatik, irakasle batek bi sail edo gehiagotako irakasgaien eskolak ematen baditu, sail honetako izan behar du: zer modulutan ematen duen ordu gehien, sail horretako. Hala ere, ematen dituen gainerako moduluen sailen bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.



a) Sailen zerrenda

Hauexek dira ikastetxeko sail didaktikoak:

- Orotariko saila (amankomuneko blokeko moduluak)
- Taldekako kirolen saila
- Banakako kirolen saila
- Eskalada eta mendi kirolen saila
- Neguko kirolen saila
- Ur-kirolen saila

Halaber, laguntza- eta koordinazio-saila sor daiteke, hala nola informatika-saila, betiere horri gutxienez bi irakasle atxiki badakizkio.

b) Sailaren bilerak

Astean ordubete gorde behar da gutxienez sailetako kide guztiak biltzeko, ikastetxeko asteko eskola-ordutegiaren barruan. Saileko kideek nahitaez joan behar dute saileko bileretara. Sailek modalitate bat baino gehiago hartzen dutenez, saio eraginkorragoak lortze aldera, saila modalitateen arabera antolatu daiteke bilera egiteko.

Sailetan akta-liburu bat egongo da, aukeratutako formatuan (papera, elektronikoa...). Liburu hori pertsona bakarreko gobernu-organoen, ikastetxeko partaidetza-organoen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egon beharko da.

Akta bat egin behar da sailak egiten duen bilera bakoitzeko. Aktak saileko koordinatzaileak edo hark izendatu duen pertsonak idatzi beharko ditu, eta sailak onartuko ditu.

Ikasturtea amaitzean (normalean ekainean edo uztailean, denboralizazioak oporraldi arrunta barne hartzen ez badu), sailetako kideak bildu beharko dira ikasturtearen ebaluazioa egiteko, lan-plana eta haren lorpenak aztertzeko, eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko. Saileko burutzak memoria bat idatziko du, ikastetxearen urteko memorian sartzeko.

c) Sailen zereginak

Sailaren eginkizun nagusia da horri atxikitako zikloetako moduluen programazioa egitea, honako hauek zehaztuta: curriculum, ikasturteko moduluen banaketa, modulua osatzen duten unitate didaktikoak, ikaskuntza-emaitzak, ebaluazio-irizpideak, lotutako edukiak eta unitate didaktiko bakoitzerako jardueraplana, ikasleek modulu profesional bakoitzean ezarritako gaitasunak eskuratzen dituztela bermatze aldera.

Sail bakoitzak programa ofizialak erreferentziatzen hartuta diseinatu beharko dute curriculum, baina, halaber, badute aukera haiek egokitzeko eta birmoldatzeko, diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera. Aldaketa guztiak kasuan kasuko sailaren akta-liburuan adierazi behar dira. Ikuskaritzak bermatuko du egindako egokitzapenek curriculumeko gutxieneko irakaskuntzak betetzen dituztela.

Gainera, sailek betekizun hauek izango dituzte:

- Ohiko eta ohiz kanpoko probak prestatzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- Prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak edo espezialitateari lotutako baliabideak sortzeko proiektuak proposatzea.



- Emaizta akademikoak aztertzea, eta programazioen betearazpen-maila neurtzea.
- Ziklo bakoitzean irakatsi eta ikasteko prozesua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren elementu logistikoak antolatzea.
- Prestakuntza praktikoko blokea/modulua behar bezala garatzeko estrategiak eta eginkizunak ezartzea (besteak beste, prestakuntza praktikoa egiteko egokiak diren klubak edo inguruko beste erakunde batzuen zerrenda katalogatzea eta prestakuntza ikasleei esleitzeko irizpideak zehaztea) eta moduluaren berezko jardueren jarraipena egitea.
- Amaierako proiektuaren moduluak izan behar dituen ezaugarriak zehaztea eta moduluaren jarraipena egiteko mekanismo egokiak ezartzea, baita horri aplikatutako ebaluazio- eta kalifikazio- prozedurak ere.
- CPED KIROLENE KIIPk eskaintzen dituen irakaskuntzen izaera kontuan hartuta (bereziki, mendiko eta eskaladako modalitateak eta neguko kirolak), sailek eguneratutako istripu-protokoloa izan behar dute, istripuen kasuan horri jarraitzeko.
- Sail horri dagozkion urteko programazioak egitea eta eguneratzea.

d) Saileko burutza

Saileko burua funtzionamenduaren arduraduna da, eta betekizun hauek ditu:

- Sailaren jarduera zuzentzea eta koordinatzea.
- Bilerak antolatzea, prestatzea eta bileren buru izatea.
- Programazioaren alderdi guztiak betetzen direla zaintzea.
- Moduluen programazioak osatu eta eguneratu direla bermatzea, horretarako adierazitako epean.
- Lanak kideen artean banatzea.
- Ikasketa-burutzari bere sailean hautematen duen edozein irregulartasun jakinaraztea.
- Egiten diren bileretako aktak badirela bermatzea.
- Ikastetxeak AJAn zehaztu dituen beste betekizun batzuk.

Sailaren buruak urriaren 30aren aurretik eman beharko dizkio programazioak ikastetxeko zuzendariari; horrek Lurralde Ikuskaritzako buruari igorriko dizkio, dagokion ikuskaritzara bideratu ditzan. Programazio horiek ikastetxearen curriculum-proiektuan sartuko dira eta sailen esku egongo dira ikastetxearen intranetaren bidez.

e) Saileko burua izendatzea

Saileko burua bertako irakasle bat izango da, eta zuzendaritzak izendatuko du, sail bakoitzaren proposamena kontuan hartuta. Sail batek izendapen-proposamenik egiten ez badu, zuzendaritzak, ahal dela, arduraldi arrunta duen irakasle bat izendatuko du saileko buru.

Beti ere aipatutako irizpideak beteta, ikastetxeko antolakuntza- eta jarduera-araudiak (AJA) xedatzen duena hartu behar da kontuan sailtako burutzak hautatzeko.

Sailtako buruek ezin diote karguari uko egin izendatutakoan, nahitaezko kasuetan izan ezik, sailtako burutza guztiek titular bat izan dezaten ikasturte hasierarako.

f) Sailaren dokumentazioa

Sail didaktiko guztiek akta-liburu bat eduki beharko dute ikastetxean ezarritako formatuan, eta ikastetxeko kide bakarreko organoen, partaidetza-organoen eta ikuskaritzaren eskura utziko dute.

Akta bat egin behar da sailak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar



dituzte aktak, eta saileko buruak edo hark izendatutako irakasleak idatzi behar ditu.

Amaierako ebaluazioaren ondoren, ikasturtearen hasierako programazioaren eta horren betetze- mailaren azterketa egingo, eta kausak aztertuko dira.

Ikasleen proba, ariketa eta azterketak gorde behar dira, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, 9. artikuluan xedatzen dituen baldintzei jarraituz. Dokumentazio hori ikasturte amaierara arte gorde behar da, eta ebatzi beharreko erreklamaziorik badago, prozesua amaitu arte beharrezko den denbora guztian.

3.6. Hezkuntza-arreta

Irakasleek modu aktiboan lagundu behar dute ikasleekin egiten dituzten esku-hartze guztietan. Hezkuntza-arretako zeregin horretan, irakasleek bideratzaile, bitartekari, gidari edo laguntzaile gisa jardun behar dute, eta ikasleen oinarriko gaitasunak lantzen jarraitu behar dute, hezkuntza-eredu pedagogikoak eta hura garatzen duten dekretuek jasotzen duten bezala. Era berean, orientazioa hezkuntza-jarduera osoaren parte da, eta irakasleei dagokie, beren irakaskuntza-eginkizunaren zati gisa.

4. IKASLEEKIN LOTUTAKO ANTOLAKETA-NEURRIAK

4.1. Eskola-ordutegia

Ikastetxearen OOGk finkatu behar ditu ikasleen ohiko eskola-ordutegia, irekita egon beharreko denbora eta ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpo egin behar diren jarduerak.

Ikasleen eskola-ordutegia eta eskola-egutegia ezingo dira ikasturtean aldatu, ohiz kanpoko arrazoiengatik ez bada. Ikastetxearen berezitasuna kontuan hartuta, aldatzea gomendatzeko baldintzak egon daitezke. Edonola ere, ordutegiaren nahiz egutegiaren aldaketak behar bezala justifikatu behar dira, ebazpenaren aurreko puntuetan adierazi den bezala.

4.2. Ikasleak eskoletara joatea eta hutsegiteen kontrola.

Ikasle ofizial ororen eskubidea eta betebeharra da eskoletara joatea. Inola ere ezin dira eskoletara etortzeko borondatezko sistemak ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen ikasgaietarako.

Egunen batean ikasle gutxi badago, dena delakoagatik, ikastetxeak eta irakasleek berdin-berdin eman behar dute curriculum. 1363/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua ezartzen du «*ikasleen ikaste-prozesuaren ebaluazioa jarraitua izango dela*». Irakasleei ebaluazio-prozesu jarraitua aplikatu ahal izateko, ikasleek etenik gabe joan behar dute eskoletara eta egin behar dituzte zikloko modulu-entzako programaturako jarduerak.

Ikasleren batek behin eta berriz huts egiten badu eta frogagiriak duda-mudakoak badira, ikasketa- burutzak proposatu ahalko dio ikastetxeko OOGri zuzenketa-neurriak har ditzala frogagiriak hobeto kontrolatzeko.

Ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudian araututa egongo dira ikasleen bertaratzearekin lotutako alderdi guztiak (bertaratzearen gutxienezko ehunekoa, onartutako hutsegiteen kopurua, frogagiriak eta abar), eta eskoletara ez joateagatik matrikula galtzeari buruzko goragoko araudietan xedatutakoa ere bete behar da. Ikastetxeak beharrezkotzat jotzen dituen baliabideak erabiliko ditu bertako ikasle guztiek gai horien berri izan dezaten eta ondo ezagut ditzaten.



203/2010 Dekretuak¹⁰, 16. artikuluan, bertaratzeko araubide desberdina aurreikusten du goi-mailako kirolarientzat. Hain zuzen, kirol-irakaskuntzak oso erakargarriak dira ikasle mota horientzat, eta, hortaz, bertaratzea arautzean, aipatutako dekretuan jasotako salbuespenak kontuan hartu beharko dira.

Irakasleek derrigorrez kontrolatu behar dute ikasleak beren eskoletara bertaratzeko direla, eta ikasketaburuari hutsegiteen berri eman behar diote.

Familiei ikasleen hutsegiteen berri ematerakoan, ikasleak adingabeak badira, ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-arauadiak (AJA) dioenari jarraituko zaio. Araudi horretan gai horri buruz ezer esaten ez bada, ikastetxeko OOGk familiei hutsegiteen berri emateko epeak ezarriko ditu, informazio zuzen eta zehatza emango zaiela ziurtatuta.

Ikasketaburutzak neurriak hartuko ditu familiek hutsegiteen berri ezarritako epean izateko, eta zuzendaritzak eman behar dizkie aginduak tutoreei eta /edo ikastetxeko administrazioko langileei.

4.3. Ikastetxetik kanpoko jarduerak

Ebazpenaren hainbat puntutan adierazi den bezala, CPED KIROLENE KIIPk eskaintzen dituen irakaskuntzei dagozkien eskola-saioak ikastetxetik kanpo egin ahalko dira.

IUPko irakaskuntza-jardueren programan, besteak beste, prestakuntza-gune horiek zein diren adierazi beharko da. Zuzendaritzak ikastetxetik kanpo ematen diren moduluen erregistro eguneratua izango du, eta irakasle arduraduna, data, ordua eta iraupena adieraziko ditu. Erregistro eguneratu horretatik sortutako txostena ikastetxean egon behar da, ikuskaritzak eskatzen duenerako.

Ikasle adingabeek ikastetxetik irten behar badute jarduera didaktikoak egiteko, gurasoek edota legezko tutoreak baimena eman beharko dute. Baimena emateko, agiria bat bete ahalko da matrikula egiteko unean.

4.4. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

Gai honi dagokionez, aurrez aipatutako abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzkoan (EHAA, abenduaren 16koa), araututakoa aplikatuko da, baita, indarrean dagoen araudiari jarraikiz, ikastetxearen AJAn dekretu hori zehazteko arautzen dena ere.

Bestalde, jasota dago berdinen arteko tratu txarrak daudenean (*bullyinga*), Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi behar zaiola berehala. Ikastetxeek kasu horietan jarduteko gida bat izango dute, Hezkuntza Sailak emango diona.

Gainera, kasu horietan, erabateko arreta eta prestutasuna eskainiko dira eta, egokitzat jotzen denean, ikastetxerako eta irakasleentzat lehentasuna izango da.

5. IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDI GENERIKOAK

Kirol-irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egingo da.

Bestalde, Errege Dekretu horren hirugarren xedapen iragankorrek, 2.b) apartatuan, adierazten duenez, Errege Dekretuan bertan aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian indarrean jarraituko du ECD/454/2002 Aginduak,

¹⁰ 203/2010 DEKRETUA, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa



otsailaren 22koak, ebaluaziorako oinarrizko dokumentuak eta ikasleen mugikortasunerako beharrezkoak diren baldintzak ezartzen dituenak, hori ordeztzen duen beste araurik argitaratzen ez den bitartean.

5.1. Ebaluazio-bilerak

Ikastetxearen AJA-k berariazko araudia izango du ebaluazio-bileretarako. Beraz, paragrafo honetan xedatutakoa subsidiarioki aplikatuko da ikastetxeko AJAK ebaluazio-bilkuretarako araudi espezifikorik ezartzen ez badu.

Nahitaezkoak dira irakasle-taldearentzat; horietan, taldearen Ikasketa Burutzak koordinatuta; burutza horrek dokumentuetan adierazi behar ditu ebaluazio-jardueren emaitzak, irakasle-taldearekin hitz egin ondoren.

a) Ebaluaziorako baldintzak

Ebaluazio-bilera baliozkoa izateko, baldintza hauek bete beharko dira, gutxienez:

- Taldeko irakasle guztiak joan daitezkeen ordu batean egitea.
- Dagokion taldeko irakasle guztien bi herenek parte hartzea gutxienez.
- Irakasleek, behar den denboran eta moduan, tutoreen egoera-orrietan adieraztea modulu profesional bakoitzeko emaitzak eta estatistikak, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago gutxienez, edota ikastetxeko zuzendaritzak ezarritako muga-egun edo -orduan, baita ikasketa-buruak eskatzen duen beste edozein agiri ere.
- Tutoreak modulu bakoitzaren emaitzei buruzko txosten bat eta ebaluazio-bileran aztertu beharreko gaien gidoi bat aurkeztu beharko ditu. Gidoi hori bileraren hasieran aurkeztu eta, hala badagokio, onartuko da.

b) Bileraren akta

Ebaluazio-akta bat egin behar da ebaluazio-bilera bakoitzeko, eta aktak gai hauek adierazi behar ditu, gutxienez:

- Bertaratu diren irakasleen zerrenda, bakoitzaren sinadura jasota.
- Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda, baimen egokia duten ala ez berariaz jasota.
- Modulu bakoitzean lortutako emaitzen eta izan diren arazoaren analisia.
- Taldearen egoera orokorraren analisia, bere eskolako errendimenduaren, jarreraren eta arazoaren arabera.
- Banakako arazoaren analisia eta errefortzurako neurri edo jarduerak.

Era berean, ikasketa-burutzak osatu beharko du ebaluazio bakoitzean modulu eta ikasle-talde bakoitzean eman ez diren saioen zerrenda, arrazoiak azalduta, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eta ikastetxeko OOGren eskura utzi beharko du, haiek ondorioak baloratzeko.

c) Irakasleek ebaluazio-bileran parte hartzea

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du noiz sar daitezkeen ikasleen ordezkariak eta zer gaitan parte har dezaketen. Hala ere, ikasleen banakako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek bakarrik trata ditzakete.

d) Dokumentazioa

Ebaluazio-bileren ondoren, ikasketa-burutzak tutoreen txostenak bildu beharko ditu, eta ikastetxeko OOGri



aurkeztu. Haiekin batera, hauek aurkeztu beharko ditu: emaitzen estatistika, ikasleek eskoletara egindako hutsegiteen zerrenda, irakasleek egindakoena, eta OOGk eta Hezkuntza Ikuskaritzak dagokion aldia behar bezala ebaluatzeko beharrezko duten beste edozein datu.

5.2. Eskola-errendimendua objektiboki baloratzeko eskubidea

Ikasle orok du eskola-errendimendua objektiboki baloratua izateko eskubidea. Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da ikasleak, ikasturtearen hasieran gutxienez, jakitea zein diren modulu eta ikastaro bakoitzean ebaluazio positiboa izateko ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak eta eskatuko dizkioten gutxieneko helburuak eta emaitzak. Horrenbestez:

- Programazio didaktikoez erabiliko diren ebaluazio-irizpideak bildu beharko dituzte, eta ikasleek horien berri izan behar dute ziklo bakoitzaren hasieran.
- Irakasleek, ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleei azalduko dizkiete modulu bakoitza ebaluatu eta kalifikatzeko aplikatuko diren irizpideak, ikastetxeko sail egokiak onartuko dituenak.
- Ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak (AJA) bermatu beharko du ikasleek eta, hala badagokio, horien guraso edo legezko ordezkariak beren eskolako emaitzen ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak eskuratu ahal izatea behin zuzenduta daudenean; halaber, kasuan kasuko alegazioak aurkeztu ahal izateko dituzte, baita berraztertzea eskatu ere. Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, eskuratu diren eta ez diren gaitasun profesionalak adierazi behar dira, ikasleak egindako huts edo okerrak azaldu ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.
- Ikasleek ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak ikusteko aukera izan dezaten, irakasleek ikastetxean eduki beharko dituzte, ikasturtea amaitu arte.
- Ikasleek aukera izan behar dute ohiko eta ohiz kanpoko deialdien amaierako probak edo horien ebidentziak ikusteko, eta ondoren dagokion sailean gorde behar dira, urtebetez. Erreklamaziorik edo errekurtsorik badago martxan, agiri horiek gordetzeko aldia kasuan kasuko erreklamazio edo errekurtsioa ebatzi arte luzatuko da.

III. KIROL-IRAKASKUNTZAK

Kirol-irakaskuntzen helburua honako hau da: ikasleak kirol-modalitate edo kirol-espezialitate bati lotutako lanbide-jarduerarako prestatzea kirol-sistemaren barruan, eta prestatutako teknikari lan- munduaren eta kirol-munduaren bilakaerara eta herritartasun aktibora egokitzeko aukera erraztea.

1. IRAKASKUNTZETARAKO SARBIDEA

Irakaskuntzetarako sarbidea 1363/2007 Errege Dekretuaren 29. eta 30. artikuluek arautzen dute, eta Hezkuntza Sailak urtero deitzen duen berariazko sarbide probaz gain, hau betetzea eskatzen da:

1. Eskakizun orokorrak:

- Erdi-mailako heziketen hasierako ziklora sartzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eduki beharko da, edo horren baliokide akademikoa.
- Erdi-mailako irakaskuntzen amaierako ziklora sartzeko, beharrezkoa izango da dagokion erdi-mailako hasierako zikloa gainditu izana dagokion modalitatean, edo kirol- espezialitatean.
- Goi-mailako ziklora sartzeko, beharrezkoa izango da Batxilergo-titulua edo horren baliokide akademikoa edukitzea, baita dagokion kirol-modalitate edo -espezialitateko kirol- teknikariaren titulua ere.



2. Baldintza espezifikoa: kirol-irakaskuntzako zikloetako edozeinetara sartzeko, hezkuntza-administrazioek antolatu eta kontrolatutako proba espezifikoa bat gainditzeko eskatu ahal izango da, edo kirol-merituen bat egiaztatuz, betiere horren bidez frogatzen bada beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla dagozkion irakaskuntzak aprobetxamenduz eta segurtasunez jasotzeko eta nazioartean kirol-modalitateak edo espezialitateak aintzat hartzeko.

2.- IRAKASKUNTZEN ANTOLAMENDUA

2.1. Kirol-irakaskuntzen mailak

- Kirol-irakaskuntzak bi gradutan egituratuta daude: erdi-mailakoak eta goi-mailakoak.
- Erdi-mailako kirol-irakaskuntzak bi ziklotan daude antolatuta, «hasierako zikloa» eta «amaierako zikloa» edo «lehen maila» eta «bigarren maila» izenekoak (LOE ala LOGSE izan), eta Kirol Teknikariaren titulua lortzeko dira.
- Goi-mailako kirol-irakaskuntzek ziklo bakarria dute, eta Goi Mailako Kirol Teknikariaren titulua lortzeko dira.
- Ziklo bakoitzean, kirol-irakaskuntzako moduluak bloke erkide batean eta bloke espezifikoa batean bilduko dira. Bloke espezifikoa osatuko dute kirol-irakaskuntzako modulu espezifikoen multzoak, prestakuntza praktikoko moduluak eta, horrela badagokio, amaierako proiektuaren moduluak. LOGSE zikloetan, horietaz gain, bloke osagarri bat dago.
- Zikloen iraupena aldatu egiten da, titulu bakoitza xedatzen duen Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz.

2.2. Prestakuntza praktikoko blokea/modulua

Prestakuntza praktikoko blokeak/moduluak aukera ematen du ikastetxean hasitako titulu bakoitzeko lanbide- eta kirol-kompetentziak lortzeko. Prestakuntza praktikoko moduluaren ebaluazioan, praktikak egiten diren lanbide- edo kirol-zentroak izendatutako tutoreak ikastetxeko tutorearekin lankidetzan jardungo du.

Prestakuntza praktikoa hasteko, titulu bakoitza lortzeko Errege Dekretuak horretarako beharrezkotzat jotzen dituen irakaskuntza-moduluak gaindituta eduki behar dira. Prestakuntza praktikoko bloke/modulu bat dago irakaskuntza-aldi bakoitzean, hots, erdi-mailako irakaskuntzen hasierako zikloan edo lehen mailan eta amaierako zikloan edo bigarren mailan, eta goi-mailako irakaskuntzetan.

2.3. Amaierako proiektuaren modulua (Goi mailako zikloak)

Amaierako proiektuaren modulua goi-mailako zikloan sartzen da, eta helburua da ziklo horretako prestakuntza-aldian lortutako ezagutzak osatzea; banakako eta taldeko tutoretzan dago antolatuta.

Amaierako proiektua ikasleak egindako kirol-modalitate edo -espezialitateari buruzkoa izango da, eta kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzaren gutxienezko irakaskuntzak ezartzen dituen arauko ebaluazio-irizpideei jarraituz aurkeztuko da.

Amaierako proiektua ezagutzak osatzeko denez, kirol-irakaskuntzaren gainerako modulu komun eta espezifikoa bukatutakoan aurkeztu behar da.

3. EBALUAZIORAKO ARAU-ERREFERENTEAK

Kirol-irakaskuntzen ebaluazioaren berezitasunak, hala nola egokitzapenak, salbuespenak, baliokidetzak, kalifikazioak jakinaraztea, azken kalifikazioak eta igoerak, araubide bereziko kirol- irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan daude jasota, baita tituluak



eta gutxieneko irakaskuntzak xedatzen dituzten Errege Dekretuetan eta dagozkien curriculumak garatzeko dekretuetan ere.

IV.- FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO BESTE ARAU BATZUK

1. IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak¹¹ (EHAA, 2008ko maiatzaren 19koa) unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden hezkuntza-kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako administrazioak eta erakunde publikoek edota edozein pertsona fisikok zein juridikok erabiltzeko prozesua arautzen du.

Dekretuaren artikuluek zehazten dituzte, besteak beste, jardueren ezaugarriak, instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskabideak egiteko eta baimenak emateko ohiko prozedura laburtua.

Alde horretatik, ikastetxeetako eraikin eta instalazioak hezkuntza-komunitateko kide guztiei zabaltzea da eragile guztiak integratzeko eta hartzeko modu bat, komunitatean modu aktiboan parte hartzen laguntzeko eta komunitatea indartzeko jardunbide bat. Dena den, gogorarazten dugu nahitaez bete behar duela ikastetxeak aipatutako dekretuak araututakoa.

Irakasleei, tutoreei eta/edo zuzendaritza-taldeari ikastaroa behar bezala egitea eragotz dezaketen gorabeheren berri ematea.

2. IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA IZAPIDETZEA ETA ORDAINTzea

DBHko 3. mailatik unibertsitateko hirugarren ziklora irakaskuntza ofizialetan matrikulatutako 28 urtetik beherako ikasle guztiak egon behar dira Gizarte Segurantzaren eskola-aseguruan sartuta. 2018-2019 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publiko guztiek honela izapidetu eta ordaindu behar dute aseguruak:

1.- Urriaren 31n, ikastetxeak Hezkuntza Sailari igorriko dio (aurretik jakinaraziko zaion helbide elektronikora) EXCEL fitxategi bat. Horretan, datu hauek adieraziko dira: ikastetxearen izena, 8 zifrako kodea eta KKK (kotizazio-kontuaren kodea), baita eskola-aseguruan sartu behar diren eta egun horretara arte matrikulatuta dauden ikastetxeako ikasle guztien datuak ere. Hauexek dira fitxategian nahitaez agertu beharko diren ikasle bakoitzaren datuak:

- Ikaslearen identifikazio-agiri mota (NAN, AIT, eta abar)
- Identifikazio-agiriaren zenbakia (letra barne, izango balu)
- Izena
- Lehen abizena
- Bigarren abizena (izango balu)
- Ikaslearen Gizarte Segurantzako zenbakia

2.- Hezkuntza Sailak modu elektronikoa sartuko ditu aurreko datu guztiak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren aplikazio informatikoan. Aplikazio horretatik lortuko du ikastetxearen eskola-aseguruen kuoten likidazioaren ordainagiria (ordainketa-gutuna), eta posta elektronikoz bidaliko dio ikastetxe

¹¹ 76/2008 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzarako eraikin eta instalazio publikoen erabilera arautzen duena, zentro horietako urteko programazioetan jasotzen ez diren jardueretarako



bakoitzari. Ikastetxeak kasuan kasuko zenbatekoa sartu beharko du edozein finantza- erakundetan gehienez bost eguneko epean, ordainketa-gutuna jasotzen duen egunetik hasita.

3.- Geroago eskola-aseguruan sartu beharreko ikasleen matrikulazio gehiago egongo balira, ikastetxeak aurreko prozedura errepikatu beharko du beharrezkoa den guztietan. Matrikulatutako ikasle berrien datuak dituen EXCEL fitxategia hilabete bakoitzeko azken egunetan bidali behar da, azaroaren 30etik ekainaren 30era, matrikulazio berriak egon diren hilabeteetan. Kasu horietan, aurreko bi ataletan azaldutako prozedura errepikatuko da.

3. DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 EB Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Gainera, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea bete beharko dute.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarriko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hizkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratuta eduki behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeak bere funtzioak gauzatzeko tratatzen dituen datu pertsonalen jabea ez da hezkuntza- zentroa bera; aitzitik, datu horiek ikasleenak, horien senideenak, ikastetxeko langileenak edo harekin harremana duten beste pertsona fisiko batzuenak dira. Horiek dira informazio pertsonalaren benetako titularrak.

Gainera, ikasturtean sortzen diren informazioa eta zerrendak Ikasgunean kontsultatu ahal izango dira, eta ezin izango dira ikastetxeetako iragarki-tauletan argitaratu.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Hezkuntzaren eremuan, bereziki garrantzitsua da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Hala, adibidez, hezkuntza-premia berezietan buruzko datuak, hala nola minusbaliotasunen bat edo alergiak eta intolerantziak, ikasleen txosten psikopedagogikoetan jasotako datuak eta abar, ikasleen osasunari buruzko datutzat hartzen dira.

Horregatik, ikastetxeek beharrezko protokoloak ezarri behar dituzte informazio hori behar bezala tratatzeko, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (geletako egonaldia, aisialdiko ordutegia, etab.), bai ezohiko egoeretan.

4. JABETZA INTELEKTUALA IKASTETXEETAN

Obra zati txikien eta izaera plastiko eta fotografiko figuratiboko obra bakanen erreprodukzioa, banaketa eta jakinarazpen publikoa apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo



dira. Legegintzako Errege Dekretu horrek Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen du eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak arautu, argitu eta bateratzen ditu (ikus, batez ere 32. artikulua).

5. OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA IKASTETXEETAN

Hezkuntza-komunitateko hainbat eragilek eskola-bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak bereziki ikasleen osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi nahitaez arautzeko eskatzen du, eta ikastetxean biltzen den kolektibo osoarena ere bai.

5.1. Osasuneko larrialdi-egoerak ikastetxeetan

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu behar dute, hark azaltzen baitu nola jokatu.

5.2. Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-beharrizan espezifikokoak dituzten ikasleei arreta emateko, Gobernu Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabaki zuen jarduera-protokoloa beteko da.

5.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua

Ikastetxe batera sartzen diren ibilgailu guztiak ikastetxeko zuzendaritzak baimendu beharko ditu.

Sartzeko baimena izanda ere, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinaleztatzea ere. Prozedura idatziz adierazi behar da, eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak haren berri izan behar dute.

Ohiz kanpoko egoera batean sartzen bada ikastetxera, ikastetxeko zuzendaritzak edo haren ordezkariak ibilgailuari lagundu behar diote.

5.4. Obrak

Agian eskola-ordutegian obrak egin beharko dira ikastetxe batean.

Obra batzuen proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat hartzen du barnean. Edonola ere, alde batera utzita obrek segurtasun-planik duten ala ez, agindu hauek bete behar dira:

1.- Obra-eremua eta irakaskuntza-gunea erabat bereiztea. Horretarako, zera egin behar da:

- a) Obra-eremua erabat hesitzea.
- b) Obrakoak bakarrik diren ibilgailuak eta langileak sartzeko bideak sortzea.
- c) Obrakoa ez den pertsona orori sartzeko galarazteko kartela.
- d) Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela.

2.- Plano bat jartzea ikastetxearen sarreran eta obra-eremuan, ikusteko moduan. Plano horretan bi gunek koloreen arabera argi eta garbi bereizita agertu beharko dira, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzaren eskura ere jarriko da.

3.- Obretako ibilgailuak eskola-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak langileak izan beharko ditu beti sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna



bermatzeko.

5.5. Tabakoa eta edari alkoholduak

Ikastetxeko zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan ikasleen adina eta irakaskuntza mota gorabehera, tabako eta edari alkoholduen espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitaude. Halaber, behar duten ekipamenduen eta instalazioen mantentze-lanak betetzeaz arduratuko da.

6. LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUA

Gogorarazten dugu lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio guztia <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/spri-educacion/> webgunean dagoela, «Prebentzio Zerbitzua» atalean, eta prebentzio-zerbitzuko teknikariei ere kontsulta egin dakiekeela.

ZERBITZU OROKORRAK	<i>LAPZ Arduraduna</i>	<i>945 018 411</i>
	<i>Higiene arloa</i>	<i>945 018 451</i>
	<i>Psikosoziologia arloa</i>	<i>945 016 546</i>
	<i>Segurtasuna arloa</i>	<i>945 016 545</i>

LURRALDE HISTORIKOA	ZONA	ARLO TEKNIKOA	LAN OSASUNAREN ARLOA
ARABA	1. ZONA	945 01 84 51	688670550
BIZKAIA	1. ZONA	94 403 11 92	94 4031194
	2. ZONA	94 403 11 93	
	3. ZONA	94 403 11 93	
	4. ZONA	94 403 11 92	
GIPUZKOA	1. ZONA	943 02 31 74	943 023170
	2. ZONA	943 20 84 44 181 luzapena	943 700491

6.1. Segurtasuneko laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio-zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean 8etatik 11etara ez da irakaskuntza-arduraldirik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean maila bateko egonkortasun bat duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

6.2. Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan

Langileak prebentzio-gaietan trebatzeko betebeharra betetzeko (Hezkuntza Sailaren 31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek 31/1995 Legearen 29. artikulua betetzeko, irakasleak prestatzeko edo /eta ikastetxeari emateko orduetako 2 erabili behar dira, gutxienez, urtean. Prebentzio-zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du prestakuntza, behar den aurrerapenarekin zehaztutako egun eta orduetan.

6.3. Larrialdi-simulakroak



Urteroko jarduera bat da eta ahal izanez gero ikasturtearen hasieran egingo da. IUP-an sartu beharreko derrigorrezko jarduera da. Egin ondoren, simulakroaren ebaluazioa bidaltzeko bide bakarra dago: «Segurtasuna. Larrialdiak» atalean prestatutako web-inprimakia bete behar da.

6.4. Botikin eramangarria

Lantokietarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-arauak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituena: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsagarriak, guraizeak, pitzak, eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta, iraungi edota erabili bezain laster, berria jarriko da.

Eskatu eta birjartzeko:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_sprl_botiquines/eu_def/adjuntos/Botiquines_e.pdf

6.5. Lan-istripuak

Osasun arreta eta jakinarazpena Hezkuntza Sailaren webguneko «Segurtasuna. Lan-istripuak» ataleko eskemaren arabera egingo dira:

<http://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>

Zentroko zuzendaritzak baja eragiten duten edo ez duten istripu guztien erregistroa egingo du.

Zentroko langileei egindako erasoak lan-istripuztat hartzen dira, bai nahita gertatzen badira, bai nahi gabe gertatzen badira, eta erregistroan sartuko dira.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, istripuak nahiz zentroan gertatutako gertakariak erregistratzea eska daiteke.

6.6. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Zuzendaritza-taldeak lan-arriskuen ebaluazioa eta ikastetxeko larrialdi-plana jakinaraziko dizkie langile guztiei.ruak

ARAUBIDE OSAGARRIA

Ebazpen honetan berariaz aipatzen ez diren gaietan, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen 2022- 2023 ikasturterako antolaketari buruzko Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean xedatutakoa aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 28a

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
Hezkuntzako sailburuordea